



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



JOAQUÍN MAYA

Escuela especial de música
Musika eskola berezia

2026–2027eko IKASTURTEKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK

Nahi izanez gero, ikastaro batean baino
gehiagotan ematen ahalko duzu izena.
Bigarren edo hirugarren ikastaro bat
ere aukeratzen ahalko duzu plaza-
eskaera egitean

Chinchilla Jeneralaren k., 6. Tel.: 948420985/86
escuelamusica@pamplona.es

Webgunea: <http://www.pamplona.es/eu/musikaeskola>

2026-2027eko ikasturteko ikastaroen eskaintza

Konpositore handiak

Astearteetan: 10:00 – 11:30

Entzunaldi gidatuak, A taldea

Astearteetan: 12:00 – 13:30

Entzunaldi gidatuak, B. taldea

Ostiraletan: 10:00 – 11:30

Opera eta zarzuela

Ostiraletan: 12:00 – 13:30

- **Behin-behineko izen-emateen datak:** irailaren 14tik 18ra
- **Deskontuak izateko eta ordainketa zatikatua egiteko agiriak igortzea:** irailaren 22tik 23ra
- **Matrikula egiteko egunak:** irailak 24 eta 25
- **Ikastaroen hasiera:** irailak 29an, asteartearekin
- **Ikastaroen amaiera:** ekainak 4an, ostiralearekin

BEHIN-BEHINEKO IZEN-EMATEAREN ETA MATRIKULAREN BIDEAK

- **On Line:** en la WEB Municipal
<http://www.pamplona.es/escuelademusica>
- **Llamando al 010** (948 420 100, para llamar desde fuera de Pamplona)

Ikasturtearen hasiera: Irailak 30 (asteartea)

Ikasturtearen amaiera: Ekainak 5 (ostirala)

- Opera eta zarzuela (42 ordu): 147,00 €
- Entzunaldi gidatuak, A taldea (45 ordu): 157,50 €
- Entzunaldi gidatuak, B taldea (42 ordu): 147,00 €
- Konpositore handiak (45 ordu): 157,50 €

2026–2027eko IKASTURTEKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK

“Joaquín Maya” Musika Eskola Bereziko helduendako ikastaro monografikoen bidez, musika klasikoa interesatzen dutenendako musika estimatzeko ikastaro sorta bat eskaini nahi dugu. Horrela, ikasleek musika estimatzeko gaitasuna garatzea erdietsiko dute eta joaten diren kontzertuei probetxu handiagoa aterako diete.

Ez da beharrezkoa aldeztu aurretik musika ezagutzak edukitzea.

1- Musikaren historiako konpositore handiak eta estiloak.

Ikastaro honek modu errazean erakarri nahi ditu ikasleak mendebaldeko musika klasikora, konpositoreen Historian eta musikak denboran zehar izan dituen aldaketetan oinarrituta.

Ikastaroan zehar, Erdi Aroko musikatik hasi eta gaur egungo musikara arteko ibilbide bat egingen da, Musikaren Historian barna, estilo esanguratsuenetan arreta jarritz, eta bakoitzaren obra adierazgarrienak entzunez zer ezaugarrik bereizten dituzten aztertuko da. Musikaren generoak eta historia markatu zituzten musikari handiak azpimarratuko dira, baina garai bakoitzean musikariek nola lan egiten zuten ere behatuko da, kasu bakoitzean musikak zein funtzio zuen ulertu ahal izateko.

Genero guztietako musika-adibideekin (sonatak, sinfoniak, kontzertuak, baletak...), biografiekin, pasadizoekin osatuko dira azalpenak, arte-munduan bereizgarriak diren loturak, paralelismoak eta oposizioak ezarriz.

2- Opera eta zarzuela guztiondako.

1600. urtearen inguruan agertu zenetik, mendebaldeko kulturako sinbolorik handienetako bat bihurtu da opera; gainera, ondare kolektiboan hobekien iraun duen musika klasikoko generoetako bat da. Ez da harritzekoa: operan, musikaletan eta

zineman bezala, arte guztiek harmonikoki esku hartzen dute, ikuspuntu musikala eta dramatiko batetik abiatuta ikuskizun paregabea sortzeko. Operak, musikaz gozatzeko aukera eskaintzen du, eta horrez gain, etengabeko emozio-iturria da horietara errenditzeko prest dauden ikusle guztiendako.

Horregatik, monografiko hauetan ezin zen falta operari eta kideko generoei eskainitako lantegi bat, bereziki zarzuelari, genero liriko espainiarrari. Genero horiek gutxiago edo gehiago ezagututa ere, guztion eskura dagoen ikuspuntu batetik landuko dugu. Ikastaroari hasiera emateko, ahotsen sailkapenaren inguruko azalpen laburra emanen dugu, eta, jarraian, operaren elementurik bereizgarrienak argituko ditugu, eta errezitatiboak eta ariak desberdinduko ditugu, baita kontzertanteak eta koruak ere. Azkenik, operaren eta zarzuelaren historia ezagutuko dugu, adibiderik adierazgarrienak entzunez. Ikastaroaren amaieran, operaren eta zarzuelaren inguruko panoramika ederra izanen dugu, eta horrek genero berezi horietaz gehiago gozatzeko aukera emanen digu.”

3- Entzunaldi gidatuak

Musikaz gozatzeko, ez da behar-beharrezkoa inongo ezagutza teknikorik izatea, baina gure esperientzia asko aberasten ahal dugu konposizio-mota bakoitzaren bereizgarri diren faktore tekniko batzuk ulertuz gero, obra bakoitza beste belarri batzuekin entzuten lagunduko baitigute.

Ikastaro honetan musika entzuten hasteko sarrera orokor bat eskaintzen dugu, ezagutza orokorrak azalduz, besteak beste, musika-formak eta -generoak, orkestra sinfonikoaren osaera eta abar; horrez gain, irudiz lagundutako bertsioetan entzuten ditugu Iruñeko kontzertuetan laster interpretatuko diren obra zehatz batzuk.

Gogoratu Joaquín Maya musika-eskolako Ikastaro monografikoak edonork jarraitzeko pentsatuta daudela. Ikastaroez gozatzeko, ez da beharrezkoa alde zurretik musikari buruzko ezagutzarik edukitzea.

Gainera, ikastaro monografikoetan izena ematen dutenek jarduera osagarriak egiten ahalko dituzte ikasturtean zehar, hala nola entsegu irekietara joan, topaketak artistekin, etab.